

LIBURUAREN EGUNA Ormaiztegin

#LiburuarenEguna

2018/04/27

LETREN II.TRUKE AZOKA

Urtero ospatu ohi da mundu osoan LIBURUAREN, HAUR LIBURUAREN zein OLERKIAREN EGUNA. Ormaiztegin, duela 5 urte hasi ginen LIBURUAREN EGUNA ospatzen azoka desberdinekin.

Iazko ildoari jarraituz, liburu, olerki, esaera zahar, asmakizun, kantu, ipuin labur, laudorio edota bertsoak jaso eta trukatu nahi ditugu.

Honela, LETREN II.TRUKE AZOKA ospatuko da, Ormaiztegin, apirilaren 27an, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara, udaletxe aurrean.

FUNTZIONAMENDUA

Euskaraz idatzitako laudorio, olerki, esaera zahar, bertso edota asmakizunak liburuekin trukatzeko aukera izango dute parte-hartzaileek eta, onenek, saria izango dute. Mota guztietako liburuak egongo dira trukatzeko eskuragai: komikiak, euskarazko eleberriak, gaztelarazkoak, haur liburuak zein gaztetxoak.

Aurkezten den lan bakoitzeko, liburu bat bereganatu ahalko dituzte parte-hartzaileek. 6 urtetik gorako edozein pertsonak parte har dezake egitasmoan. Aurkeztutako lanak, bakoitzak sortutakoak edota gustuko duen bat izan liteke, beti ere, egilearen izena azalduz. Jasotzen diren lan guztiekin, lehiaketa egingo da, ondoren agertzen diren lau modalitateetan, eta horietako bakoitzean, saritu bakarra izango da:

- a · 30 urtetik gorakoak
- b · 18-29 urte bitartekoak
- c · 12-17 urte bitartekoak
- d · 6-11 urte bitartekoak

SARIAK: lau modalitateetako irabazleek, bina sari komun jasoko dituzte:

- 2018-19 urtean zehar eraikiko den KULTUR ETXE berrian letrei eskainiko zaien muralean lan irabazlea islatzea
- E-BOOK bana (d modalitateko sarituak aukeran izango du E-BOOK edota LIBURU SORTA baten artean aukeratzeko).

LANAK AURKEZTEKO EPEA

Apirilaren 27an bertan nahiz aurretik egongo da lanak aurkezteko aukera (bai liburutegian bai kultura.orm aiztegi@gmail.com helbidean), lanarekin batera, parte-hartzailearen adina, izen-abizenak eta kontakturako telefono edota emaila adierazi beharko dira. Parte-hartzaile bakoitzari zenbaki bat egokituko zaio. Zenbaki hori izango da lehiaketan parte-hartzeko zein liburuak trukatzeko bidea emango diona.

ESKULAN TAILERRAK

2018/04/27

Azken urteetako ohiturari jarraituz, eskulan tailerra izango dugu azokarekin batera. Oraingo honetan, paperezko animaliak sortzeko aukera izango da herriko artista baten eskutik.

2018/04/21

Azoka baina aste bete lehenago, berriz, beste tailer berezi bat izango da herrian, Zumalakarregi Museoak antolatuta, 'Paperarekin sortuz' izenburupean, 16:30etatik 18:30etara bitartean eta 7 urtetik gorako haurrei zuzenduta.

6 urtetik gorako pertsona oro egitasmoan parte-hartzera gonbidatzen dugu!